

DANTZAGUNeko ERABILERA ARAUAK

Normas de utilización de Dantzagunea

ESPAZIOEN ETA EKIPAMENDUEN EZAUGARRIAK

Espazioak

➤ **1go aretoa (ertaina)**

Ezaugarriak: 110 m²-ko dantza aretoa, pareta zuriak, linoleo zuria eta ispiluak.

Ekipamendua: JVC musika ekipoa, anplifikatu gabeko 4 bozgorailu, WorkProw DCD-370 MP3-a, konexio patch-a, RCA-minijack audio kablea.

➤ **2. aretoa (handia)**

Ezaugarriak: 240m²-ko dantza aretoa, pareta zuriak, linoleo zuria eta ispiluak.

Ekipamendua: Piano bertikala, 4 RAMSA bozgorailu, SAMSON SXD5000 anplifikagailua, 4 kanaleko IMG audio mahaia, WorkProW DCD-370 MP3-a, RCA-minijack audio kablea, ordenagailua, pantaila, sagua eta teklatura.

➤ **3. aretoa (triangularra)**

Ezaugarriak: 75m²-ko balio anitzeko aretoa, egurrezko zorua, EZ dauka ispilurik.

Ekipamendua: 2 bozgorailuko JVC musika aparatua, Iphone eta USB sarrerarekin.

➤ **4. aretoa (txikia)**

Ezaugarriak: 110m²-ko dantza-aretoa, egurrezko zorua, ispiluak.

Ekipamendua: 2 Pioneer bozgorailu, Technics SU-V450 anplifikagailua, ONKYO DX-701 CD irakurgailua, RCA-minijack audio kablea.

➤ **Beste espazio batzuk**

Aldagelak, bilera gela, sukaldea eta almazena.

OHARRA: 1go eta 2. aretoetan ezin da kaleko oinetakorik erabili linoleoa ahalik eta ondoen mantentzeko.

Ekipamendua

Dantzaguneko erabiltzaile erregistratuek **Dantzaguneko espazioetan** erabilgai daukaten materiala:

- 5 gurpildun dantza-barra (edozein aretotara mugitu daitezke)
- EOS 700D argazki kamera digitala eta norabide bakarreko mikrofonoa.
- Cullman Primax 390 tripodea.
- Lavalier edo gorbata mikrofono bat.
- 27"-ko LG monitorea.
- ASUS proiektore eramangarria.

Dantzaguneko erabiltzaile erregistratuek **Dantzaguneko instalazioetatik kanpo** erabil dezaketen materiala:

Ondorengo neurrietako linoleo beltza:

240zm x 150zm (1)

245zm x 150zm (1)

295zm x 150zm (1)

640zm x 150zm (2)

900zm x 150zm (2)

900zm x 140zm (1)

Karga eta deskargarako sarrera-irteerak

Materiala kargatu edo deskargatu behar duten erabiltzaileek ibilgailua Dantzaguneko sarrerara hurbildu dezakete. Horretarako, gure bulegoan eskatu dezakete urrutiko mandoa. Karga eta deskarga lanak bukatutakoan derrigorrezkoa da ibilgailua gunetik erretiratzea.

Karga eta deskarga lanak 9:00tatik 21:00etara egin ahal izango dira, Koldo Mitxelena Ikastetxeko umeen sarrera eta irteera orduetan izan ezik (goizeko 9:00etan eta arratsaldeko 16:30etan).

1. eranskina: karga eta deskargarako sarrera eta irteera plana.

Dantzaguneko bulego-ordutegia

Astelehenetik ostiralera:

9:00-15:00

16:30-21:00

ESPAZIOAK UZTEKO IRIZPIDEAK

Espazioak uztea

Dantzaguneko espazioak erabili ahal izango dituzte dantza aktibitateak egiten dituzten erabiltzaileek: besteak beste entseguak, beroketak, performance-ak, topaketak eta erakustaldiak.

Erabiltzaileak

Dantzaguneko espazioak eta zerbitzuak ez-ohiko ordutegian erabili ahal izateko, erabiltzaileek erregistro-fitxa bat bete beharko dute, eskatutako espazioak modu arduraz erabiliko dituztela sinatuz. Erregistratzen ez diren erabiltzaileek, Dantzaguneko ohiko ordutegian bakarrik erabili ahal izango dituzte espazioak.

Egutegia eta ordutegiak

Dantzaguneko erabiltzaileek Dantzaguneko espazioak erabili ahal izango dituzte ondorengo ordutegietan:

Ohiko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 21:00etara.

Ez-ohiko ordutegia: asteburuak, jai-egunak eta opor-aldiak. Espazioak ordutegi honetan erabili ahal izateko, erabiltzaile erregistratua izatea beharrezkoa da eta Dantzaguneko bulegoan sarrera-txartela eskatu beharko da.

Ordutegi eta espazio hauez gain, Errenteriako Udalarekin eta Dantza eta Musika eskolarekin daukagun hitzarmenari esker, astelehenetik ostiralerako ohiko ordutegian Errenteria Musikal-eko espazioak ere erabili ditzake nahi duenak. Horretarako, Dantzagunean egin beharko du eskaera.

Eskaerak

Eskaerak 2 modutara egin daitezke: dantzagunea.gipuzkoakultura.eus webguneko formularioaren bitartez edo Dantzaguneko bulegoan eskaera-orria betez.

Garrantzitsua da egingo den aktibitatea ahalik eta modu zehatzenean deskribatzea, Dantzagunetik sormen prozesuak dokumentatu, ekimenak bultzatu eta dantzaren hedapenean elkarlanean aritu gaitezen.

Irizpideak

Erreserbak egiteko orduan, lehentasun irizpide bat egindako eskaeraren zehaztasuna da eta beraz, ez da kontuan hartuko eskaera noiz iritsi den. Honetaz gain, Dantzaguneak ondorengo lehentasun irizpideak ere kontuan izango ditu aretoen erreserbak egiteko:

-Egonaldi artistikoak.

-Sormen prozesuak eta proiektuak. Bai egonaldi eta baita sormen prozesuen kasuetan, sortzaileek lan-egutegi bat aurkeztu dezakete, prozesuaren iraupen osoarekin (hilabetero eskaera bidali beharrean). Modu honetan Dantzaguneak ere sortzaileen espazio eta beharrei ahalik eta erantzun egokiena eman ahal izango die.

-Entsegu, beroketa edo lanerako ohiko espazio bat behar duten dantzari, koreografo edo kolektiboak.

-Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkarteak antolatutako **ikastaro eta tailerrak**. Hemen sartzen dira Dantzan Ikasi programako ikastaroak eta Dantzaguneak berak antolatutako tailerrak ere.

Tailerrak

Dantzaguneko espazioak erabilgarri daude ondorengo premisak betetzen dituzten eta tailer irekiak edo ikastaroak antolatu nahi dituzten elkarte eta kolektiboentzako:

-Eskaerak **irabazi-asmorik gabeko elkarte baten izenean** egingo dira Dantzaguneko espazioak espazio publikoak direlako eta bertan egiten diren aktibitateak ere halakoak izan behar direlako. Matrikulazioen diru-sarrerak irakasleen gastua ordaintzeko izan behar dira.

-Tailer edo ikastaroaren **deskribapen labur bat eta matrikularen zenbatekoa zehaztu** beharko dira.

-Dantzaguneak bere komunikazio tresnen bidez ahalik eta hedapen eraginkorrena egin dezan, espazioaren eskaerak eta tailerrari buruzko **informazioa nahikoa denborarekin bidali** beharko dira.

-Ez dira tailer eta ikastaroak egun berdinetan programatuko Dantzaguneko espazioetan, elkarte eta dantza-taldeen arteko konpetentzia ekiditeko.

-Dantzagunean egiten diren **tailer eta ikastaro guztiak irekiak** izango dira eta Dantzaguneak haien komunikazioan eta promozioan lagunduko du bere baliabideen bitartez.

-Asteburuan eta ez-ohiko ordutegian egiten diren tailer eta ikastaroetan, elkartearen arduradunek bere gain hartuko dute Dantzaguneko **espazioak garbi eta txukun mantentzeko ardura**.

EKIPAMENDU ETA MATERIALEN UZTEA

Dantzaguneko erabiltzaile erregistratuak erabilgarri daukate Dantzaguneko ekipamendu teknikoa, beti ere Dantzaguneko espazioen barruan erabiliz gero. Ekipamendu hori ezingo da Errenteriako instalazioetatik atera.

Linoleoa, aldiz, Dantzagunetik kanpo erabili daiteke, beti ere espazio itxietan eta gainazal leunetan.

Ekipamendu eta material hauek erabili ahal izateko, erabiltzaileek Dantzaguneko bulegoan eskaera-orri bat bete beharko dute eta materiala modu egokian jaso eta bueltatzeko ardura hartuko dute.

DANTZAGUNEAREKIN LANKIDETZA

Dantzagunearen erabilerak ekintza komunikatiboak sortzen dituen kasuetan (material promozionalak etab.) erabiltzaileek Dantzagunearen eta Errenteriako Udalaren logotipoak txertatu beharko dituzte material horietan, proiektuaren entitate-laguntzaile gisa.

BULEGO IREKIA

Dantzaguneari "Bulego Irekia" zerbitzua ere eskaintzen du. Astelehenetik ostiralera Dantzaguneko lan-taldeak aholkularitza orokorra eskaintzen die erabiltzaileei. Kotsultak alde aurretik jakinarazi beharko zaizkio lan-taldeari eta kontsulta espezializatuen kasuan, lan-taldeak gai horretan jakitunak diren kanpo-aholkulariengana joko luke jarraian azaltzen diren gaien kasuan:

Formakuntza eta profesionalizazioa


Hedapenerako formula berriak eta sarean lana

Produkzioa eta produktu eszenikoen birak

Diseinu eszenikoa

Nazioarteko sarea: sormen garaikiderako aholkularitza

DANTZAGUNEKO ERABILERA ARAUAK
Normas de utilización de Dantzagunea



Dantza eta ondarea

Dantza heziketa zentroetan

Goi mailako arte ikasketa profesionalak

Europar proiektuak

CARACTERÍSTICAS DE LOS ESPACIOS Y EL EQUIPAMIENTO

Espacios

➤ Sala 1 (sala mediana)

Características: sala de danza de 110m², paredes blancas, espejos, suelo de tapiz blanco.

Equipamiento: Cadena de música JVC, 4 Altavoces no amplificados, MP3 WorkProW DCD-370, selector de entradas, cable de audio RCA a minijack.

➤ Sala 2 (sala grande)

Características: sala de danza de 240m², paredes blancas, espejos, suelo de tapiz blanco.

Equipamiento: piano vertical, 4 Altavoces RAMSA, amplificador SAMSON SXD5000, mesa Audio de 4 canales IMG, MP3 WorkProW DCD-370, cable de audio RCA a minijack, ordenador DELL con pantalla plana, teclado y ratón.

➤ Sala 3 (triangular)

Características: sala polivalente de 75m², sin espejos, suelo de madera.

Equipamiento: equipo de música SONY con 3 altavoces, entrada USB y Iphone.

➤ Sala 4 (madera)

Características: sala de danza de 110m², con espejos, suelo de madera.

Equipamiento: 2 Altavoces Pioneer, amplificador Technics SU-V450, reproductor CD ONKYO DX-701, cable de audio RCA a minijack.

➤ Otros espacios

Vestuarios, sala de reuniones/ office, cocina y almacén.

NOTA: No está permitido el uso de zapatos o zapatillas en las salas 1 y 2, por no deteriorar el tapiz de danza y poder mantenerlo en las mejores condiciones.

Equipamiento

MATERIAL que todo usuario registrado tiene a su disposición para utilizar **dentro de los espacios** de Dantzagunea:

- 5 barras de danza (se pueden mover a cualquier sala)
- Cámara de fotos reflex-digital Canon EOS 700D con micrófono unidireccional.
- Trípode de cámara Cullman Primax 390.
- 1 micrófono lavalier (de solapa)
- Pantalla de televisión LG 27"
- Proyector portátil ASUS

MATERIAL que todo usuario registrado tiene a su disposición para utilizar **fuera de las instalaciones** de Dantzagunea:

- 8 rollos de linóleo negro, de las siguientes medidas:

240cm x 150cm (1)

245cm x 150cm (1)

295cm x 150cm (1)

640cm x 150cm (2)

900cm x 150cm (2)

900cm x 140cm (1)

Acceso carga y descarga

Todo aquel usuario que necesite acercar su vehículo para cargar o descargar material, puede solicitar el mando a distancia en nuestra oficina para acercar el vehículo a la entrada. Solamente está permitido el acceso para tareas de carga y descarga y en ningún caso está permitido estacionar el vehículo en la zona.

El horario de carga y descarga será de 9:00 a 21:00, exceptuando los horarios de entrada y salida del Centro Escolar Koldo Mitxelena de Errenteria (9:00 de la mañana y 16:30 de la tarde).

Documento adjunto en el anexo I: plano de acceso para carga y descarga.

Horario de la oficina de Dantzagunea

De lunes a viernes:

9:00-15:00

16:30-21:00

CRITERIOS DE CESION DE ESPACIOS

Cesión de espacios

Los espacios de Dantzagunea estarán a disposición de todo usuario registrado de Dantzagunea que realice actividades de danza, desde ensayos y calentamientos hasta performances, encuentros o muestras.

Usuarios

Para poder utilizar los espacios y servicios de Dantzagunea en horario no-habitual, los usuarios deberán rellenar una ficha con sus datos, con la que se comprometerán a hacer un uso responsable de los espacios. Los usuarios no registrados solamente podrán utilizar los espacios de Dantzagunea en horario habitual.

Horarios y calendario

Los usuarios podrán utilizar los espacios de Dantzagunea en:

Horario habitual: de lunes a viernes, de 9:00 a 21:00.

Horario no habitual: fines de semana, festivos y períodos vacacionales. Los usuarios registrados tendrán que solicitar la tarjeta de acceso a las instalaciones en nuestra oficina.

Además, gracias al convenio de colaboración con el Ayuntamiento y la Escuela de Música y Danza de Errenteria, se podrán utilizar las salas de danza de **Musikal Errenteria**, de **lunes a viernes**, siempre y cuando estén disponibles. Las solicitudes se gestionarán desde Dantzagunea.

Solicitudes

Las solicitudes se pueden realizar online, a través del formulario de solicitud de espacios de la página web www.dantzagunea.gipuzkoakultura.eus. También se podrán realizar rellenando el impreso de solicitud en la oficina de Dantzagunea.

Es importante describir la actividad a realizar en los espacios, para que desde Dantzagunea podamos contribuir a documentar procesos de creación, apoyar iniciativas y cooperar en la difusión de la danza.

Criterios de cesión de espacios

Los criterios que aplicará Dantzagunea a la hora de reservar sus espacios **no** irán en función del orden de llegada de las solicitudes, no se tendrá en cuenta cuándo se reciben, sino la concreción de lo que se pide. Para ello se aplicarán las siguientes prioridades:

-Residencias artísticas.

-Procesos de creación y proyectos. En ambos casos, para poder garantizar un espacio de trabajo estable y que se adecue a las necesidades de cada uno, los creadores pueden presentar un calendario de trabajo de todo el proceso, sin tener que enviar la solicitud de espacio mensualmente.

-Bailarines, colectivos o coreógrafos que necesiten de un espacio habitual de calentamiento, ensayos y trabajo.

-Clases y talleres organizados por la Asociación Profesional de danza de Gipuzkoa o Diputación Foral de Gipuzkoa. Se incluyen en este apartado los talleres organizados por Dantzagunea y los cursos del programa Dantzan Ikasi.

Talleres

Se cederán los espacios de Dantzagunea a asociaciones o colectivos que quieran hacer talleres o clases abiertas y que cumplan con las siguientes premisas:

-La **solicitud se hará en nombre de una asociación** y en ningún caso, será una actividad de lucro, ya que los espacios de Dantzagunea son espacios públicos que se ceden a actividades sin ánimo de lucro. El ingreso de las matrículas deberá ir destinado exclusivamente a cubrir gastos de profesorado.

-Se deberá presentar una **breve descripción de los contenidos del taller y detallar el precio** de la matrícula.

-La **solicitud** de espacio para talleres y el **envío de la información se realizará con la suficiente antelación** para que Dantzagunea pueda informar y comunicar la actividad a través de sus canales de difusión.

-En principio, **no se programarán talleres en las mismas fechas** en los espacios de Dantzagunea. Se valorará cada una de las propuestas recibidas.

-Los talleres impartidos en los espacios de Dantzagunea serán siempre **abiertos al público** y el equipo de Dantzagunea colaborará en la promoción y difusión de dichos talleres a través de los recursos que tiene a su disposición.

-En los talleres que se realicen en fin de semana, **los responsables de la asociación y del taller se tendrán que hacer cargo de la limpieza del espacio**, dejando el lugar en las mismas condiciones en las que se encontraba.

CESIÓN DE EQUIPAMIENTO Y MATERIALES

El equipamiento técnico está a disposición de los usuarios registrados, siempre y cuando se utilice DENTRO DE LOS ESPACIOS DE DANTZAGUNEA, nunca se podrán utilizar fuera de las instalaciones de Errenteria. A excepción de los rollos de linóleo, que pueden utilizarse fuera de Dantzagunea, pero siempre en espacios cerrados y sobre superficies lisas que no lo puedan deteriorar (no está permitido su uso al aire libre).

Para solicitar el uso de cualquiera de estos equipos o materiales, hay que rellenar la hoja de solicitud en nuestra oficina. Se debe hacer un uso responsable del material y devolverlo en las mismas condiciones en las que se entregó.

COLABORACIÓN CON DANTZAGUNEA

En los casos en los que el uso del servicio Dantzagunea genere acciones comunicativas, materiales promocionales, etc., los usuarios de Dantzagunea deberán incluir en sus materiales promocionales los logotipos de Dantzagunea y el Ayuntamiento de Errenteria, como entidades colaboradoras de sus proyectos.

BULEGO IREKIA

Además de todos estos servicios, Dantzagunea tiene a disposición de todos sus usuarios el servicio de Bulego Irekia. Este servicio consiste en unas horas semanales de consultoría/asesoría generalista por parte del equipo de gestión. Las consultas se atenderán previo aviso y en el caso de las consultas especializadas, el equipo de gestión podría elevar la consulta a asesores externos especializados en ámbitos, tales como:

Formación y profesionalización

Nuevas fórmulas de difusión y trabajo en redes

Producción y gira de productos escénicos

Diseños escénicos

Red Internacional: asesoría en creación coreográfica contemporánea

Derechos de autor y gestión de derechos

Danza y patrimonio

Danza y centros educativos

Enseñanzas artísticas profesionales y superiores

Proyectos europeos

Erreterian, 2015eko maiatzaren 27an.

En Erretería, el 27 de mayo del 2015.

1. ERANSKINA / Anexo 1

